



Lurraldeetan ez da bakea sentitzen, baina itxaropenari eusten diote

Nazioarteko Egiaztapen Misioaren txostena, genero-ikuspegia
kontuan hartzen duen bake-hitzarmenaren ezarpenari buruzkoa

LABURPEN EXEKUTIBOA ETA GOMENDIOAK



Mundubat

www.mundubat.org
www.facebook.com/Mundubat



abriendo espacios para la paz

Nazioarteko Misioak izandako ibilbidea

1. Taldea Cali > Tumaco > Bajo Atrato > Bogotá

2. taldea ----- Cali > Buenaventura > Quibdó > Bogotá



Koordinazioa:

Mundubat Fundazioa
Kolonbiako PBI Taldea
Estatu Espainoleko PBI Taldea

Elaborazioa:

Vincent Vallies

Diseinua eta maketazioa:

César Marcos



Aitortza-Ez komertziala-2.5 Espainia bereko lizentziapean partekatu.

Sortutako materialak hirugarrenek banatu, kopiatu eta bistaratu dezakete, autoreak eta jatorria kredituetan erakusten badituzte. Ezin da inongo merkataritza etekinik atera eta lan eratorriak jatorrizko lanaren lizentzia-baldintzen berdinak izan behar dute.

2017ko Abenduan

edukien taula

04 orr.

Laburpen exekutiboa

16 orr.

Gomendioa





Laburpen exekutiboa

50 urtetan baino gehiagotan, Kolonbiako gobernuaren eta gerrillen arteko gatazka politiko, sozio-ekonomiko eta armatuak ondorio suntsitzaileak izan ditu Kolonbiako herritarrengan. Memoria Historikoaren Zentro Nazionalak (CNMH) "¡Basta Ya!" izeneko bere txostenean adierazi zuen moduan, gatazka armatuak 220.000 heriotza (%81 herritar zibilen artean) eta sexu-indarkeriaren 1.754 biktima baino gehiago eragin ditu 1958 eta 2012. urteen artean, emakumeak gehienak. Gainera, CNMHk derri gorrez desagertutako 60.630 biktima erregistratu zituen 1970 eta 2015. urteen artean. "¡Basta Ya!" txostenaren arabera, indarrez kendutako edo utzitako 8,3 milioi hektarea baino gehiago daude, eta herrialdearen beraren barnean lekuak datu diren kopurua 7,3 milioi ingurukoa da -2017ko otsailean-. CNMH zentroaren arabera, generoen arteko egiturazko desberdinta-

Habanan negoziatu ostean, 2016ko abuztuan lehen akordio bat lortu zuten, 2016ko irailaren 26an Cartagenan ospatutako ospakizun ofizial batean sinatu zutena. Negoziazio horietan, genero-azpibatzerde bat ezarri zen alderdi guztiei Bake Hitzarmenak barne hartu behar zuen genero-ikuspegi bereizgarriaren inguruko informazioa eskaintzeko, eta hori guztiz eredugarria izan da, mundu osoarentzat, emakumeak bake-prozesuetan gaineratzeko eta emakumeek horietan parte hartu ahal izateko. Gobernuak hitzarmen hori herritarrekin berrestea erabaki zuen, plebiszituari dagokion mekanismoaren bitartez. Marjina txikia izan arren, haren emaitza negatiboa izan zen eta, beraz, puntu jakin batzuk berriz negoziatu behar izan zituzten. Azkenik, 2016ko azaroaren 24an, gatazkari amaiera emateko eta bake egonkor eta iraunkorra eraikitzeko Azken Hitzarmenaren bigarren bertsioa sinatu zuten (aurrerantzean, Bake Hitzarmena). Errepublikako Kongresuak hitzarmena berretsi zuen urte bereko azaroaren 30ean.



sunak dira gatazka armatua sostengatzen duten engranjeetako bat. Hori dela eta, bakea eraikitze behar-beharrezkoa da emakumeen kontra gauzatzen diren indarkeriak erazteko bidean aurrera egitea, zaurgarritasun-egoera larrienean dauden emakumeen kasuan batez ere.

Kolonbiako gobernuak eta Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak - Herriaren Armada (FARC-EP) gerrillak gatazka armatuari amaiera ematea erabaki zuten. 4 urtetan baino gehiagotan zehar

Bake Hitzarmenaren ezarpena in situ baloratu ahal izateko, Mundubat Fundazioak eta Nazioarteko Bake Brigadek (PBI) -bi erakundeak Giza Eskubideen Nazioarteko Bulegoko - Acción Colombia (OIDHACO) kideak dira- nazioarteko egiaztatze-misio bat antolatu zuten Kolonbian (aurrerantzean, Misioa). Misio horretan, giza eskubideen, defendatzaileen, bakearen eraikuntzaren eta genero-ikuspegiaren esparruetan adituak diren nazioarteko 10 lagunek parte hartu zuten, besteak beste. Bogotan ez ezik, Misioa hiri- nahiz landa-izaerako lurraldeetan izan da, Nariñon (Tumaco), Valle del Cauca (Buenaventura), Cauca (La Elvira), Chocón (Quibdó) eta Urabán (Jiguamiandó, Curvaradó eta Cacarica arroetan), adibidez. Astebetez, Misioa osatzen zuten kideak komunitateekin, emakume- eta feminista-elkarteekin, jatorri afrikarrekoen erakundeekin, nekazari eta indigenekin, biktima-elkarteekin, giza eskubideen erakundeekin, tokiko eta nazioko agintariekin, gorputz diplomatikoarekin, nazioarteko erakundeekin, Bake Hitzarmenak sortutako erakundeekin eta gaur egun FARC alderdiko kide diren FARC-EPko gerrillari ohiekin bildu ziren¹.

¹ Txostenean, Kolonbiako Indar Armatu Iraultzaileak - Herriaren Armada gerrillari egiten diogu erreferentzia FARC-EP siglekin. Bestalde, Fuerza Alternativa Revolucionaria del Común izeneko alderdi politikoari egiten diogu erreferentzia FARC siglarekin.

Misioak kontsultatutako guztiek Kolonbian bakea eraikitzeke eta bake-prozesuan laguntzeko konpromisoa agertu zuten. 50 urte baino gehiago iraun dituen gatazka armatu horri amaiera emateko hitzarmen adostu bat lortu izana sekulako arrakasta izan dela azpimarratu dute guztiek, gizarte-mugimenduaren urte askotako lanaren fruitua. Izan ere, horiek irteera negoziatu bat eskatu dute gatazka armatua hasi zenetik, baita Juan Manuel Santos presidentearen gobernuak eta FARC-EP gerrillak agertutako irekiera ere. Gatazka armatu horri amaiera eman izanaren emaitzarik nabarmenena **gatazkak eragindako heriotza-kopuruaren murrizketa** izan da, Gatazkak Aztertzeke Bitartekoen Zentroak emandako zifren arabera, *“gatazkaren metatu historikoarekin alderatuta, FARCEkin egindako bake-prozesuari esker 2.796 lagun heriotzari aurre egin zaio, gutxienez: gehienak FARCEko gerrillariak eta indar publikoko kideak (1.553 FARCEkoak eta 556 indar publikokoak)”*². Bestalde, Bake Hitzarmenak piztu zituen itxaropenak ez dira inola ere bete, eta Misioak etsipen handia hauteman zuen bisitatutako hiri- nahiz landa-izaerako lurraldeetan. Dena den, itxaropena

“Ezin dugu itxaropena galdu. Komunitate gisa, bakearen aldeko apustua egiten jarraituko dugu. Ez dago beste biderik.”

Cacarica - Urabá arroko buruzagi afrokolonbiarra.

mantentzen dute oraindik. Misioak Bake Hitzarmenean gaineratutako honako 3 gai hauek hartu zituen oinarri gisa: segurtasun-bermeak, partaidetza politikorako bermeak eta gudari ohiak berriz gizarteratzea, eta egia, justiziaren, errepazioaren eta gertatutakoa ez errepikatzeko sistema integrala. Puntu horietako bakoitzean, Misioak genero-ikuspegia barne hartzen duten neurrien betetze-mailari eta horiek emakumeengan duten inpaktuari buruzko informazioa bilatu

zuen. Lurraldeetan eta erakundeetan hautemandako bake-pedagogia eskasaren eraginez, ez da batere erraza izan gatazkak emakumeengan izan duen inpaktu bereizia eta horiek bakearen erakuntzan izan duten partaidetza aztertzea. Izan ere, horiek oso gutxi identifikatuta eta aitortuta egoten jarraitzen du oraindik ere.

Segurtasun Bermeak

Segurtasun-egoera oso kezagarria da bisitatutako lurralde guztietan. FARC-EP gerrillak kontrolatzen zituen lurraldeetara **legez kontrako aktore armatu berriak iritsi direla** jasotzen duten testigantza orokorrak daude: talde neoparamilitarrak³, talde narkotrafikatzaileak, ELN gerrilla eta FARC-EPen disidentziak. Aktore armatu berri horiek presio- eta larderia-ekintzak gauzatu dituzte komunitateengan eta gizarte-lidergoa dutenengan, haurrak errekrutatu dituzte, aktore armatuen artean gatazkak sortzeko arriskua areagotu dute –komunitateak bizi diren guneetan lurraldea bereganatzeko borroka eginez–, lekualdatze behartuak eragiteko arriskua handitu dute, eta pertsonen kontrako minak ezarri dituzte. Horrenbestez, lurralde horietan egoerak ez du hobera egin Bake Hitzarmena sinatu zenetik; are gehiago, gatazka armatuak bere horretan jarraitzen du horietan, eta larriagotu egin da kasu batzuetan. Misioari oso kezagarria eta nahasgarria iruditzen zaio Kolonbiako gobernuak beharrezko neurriak ez hartu izana, FARC-EPek utzi duten hutsunea betetzeko, hain zuzen ere.

Oro har, herrialde osoan **gora egin dute giza eskubideak defendatzen dituzten eta gizarte-lidergoa dutenen hilketek**. Herriaren Defendatzaileak –lurralde osoan presentzia duen Kolonbiako Estatuaren erakundea– adierazi duen moduan, 2016ko urtarriletik giza eskubideak defendatzen zituzten eta gizarte-lidergoa zuten 200 lagun baino gehiago erail dituzte. OPIAC erakunde indigenak 40 indigenen hilketa salatu

2 “Un conflicto largo, de terminación negociada”, Monitor del Cese el Fuego Bilateral y de Hostilidades, CERAC, 2017ko ekainaren 30a.

3 Azterketa eta izendapen ugari daude talde horiei dagokienez. Kolonbiako Estatuak paramilitarismorik ez dagoela dio, eta horiek Talde Armatu Antolatu edo Talde Armatu Delitugile izendatze erabaki zuen. Gizarte-mugimenduko erakundeek –talde horiek Indar Publikoko kideekin dituzten harremanak direla eta– paramilitar edo neoparamilitar deitzen diete (2005eko 975 Legeak eragindako desmobilizazio-prozesu partzialaren ostean jasan zituzten aldatetarik ikusgai egiteko, baina baita jarraitutasun-arrastoak ere); bake-hitzarmenean, “paramilitarren ondorengo talde” gisa izendatzen dira. Misioaren eginkizuna ez da izan errealitate hori ikertzea, baina Indar Publikoarekin elkar hartu izanaren lekukotzak entzun ahal izan zituen. Horregatik, txostenean neoparamilitar gisa egiten zaie erreferentzia talde horiei. Izendapen horren asmoa ez da etengabe aldatzen ari diren errealitateak alde batera uztea, taldearen edo erlijioaren arabera.

du Kolonbiako Gobernuak eta FARC-EPk Bake Hitzarmenak sinatu zituztenetik. Emakume defendatzaileen hilketa-kopuruak gora egin izana da datu kezkarrienetako bat. “Somos Defensores” izeneko programak giza eskubideak defendatzen zituzten 7 emakumeren hilketak erregistratu zituen 2017ko lehen sei hilekoan. Hau da, 6 hilabetetan 2012, 2013, 2014, 2015 edo 2016. urte osoan bezainbeste emakume hil zituzten.

Herriaren Defendatzaileak sexu-indarkeriaren iraunkortasuna azpimarratu zuen, “*herritarrak kontrolatzeko neurri gisa, aktore armatuak lurraldean birkokatzeko eta hura dominatzeko orduan izan ditzaketen gatazketan*”⁴. Gainera, 2017. urteko lehen 10 hilabeteetan sexu-indarkeriaren

361 kasu artatu zituzten gatazka armatuaren esparruan. Egoera ez da askoz hobea borroka armatua uzteko eta berriz ere bizitza zibilera itzultzeko apustua egin duten FARC-EP gerrillako kideentzat. 2017ko urriaren 20an, **25 gudari ohiren eta 11 senitartekoren hilketa** sistematzatu zen. Zoritxarrez, azaroan ere hilketa gehiago gertatu dira.

Bake Hitzarmenak aurreikusten dituen neurriei dagokienez, Kolonbiako Konstituzio Politikoan talde armatuen –neoparamilitarrak barne– sorrera eta babesa debekatzeko arau bat txerta zedila aldarrikatu zuen Misioak, baita Estatuaren aldetik indarraren eta armen erabileraren monopolio legitimoa berma zedila ere. Nolanahi ere,



Bianca Bauer

*“Kontua ez da beldurra dudala,
beldurrez bizi naiz.”*

*Tumaco - Nariño arroko buruzagi
afrokolonbiarra*

aurreikusitako neurri gehienek ezarri gabe jarraitzen dute, zoritxarrez. **Segurtasuna Bermatzeko Batzorde Nazionala** sortu arren, hark ez du bere helburua bete, hau da, ez du erakunde kriminalak desegiteko politika publiko bat diseinatu, erakunde neoparamilitarrak barne. Batzordeak ez du bere eginkizuna betetzen ari dela pentsatzeko moduko lanerako plan argirik eta garde-nik. Ez da eskualdeetan egon tokiko komunita-

4 “Herriaren Defendatzaileak emakumeentzako Ekintza Plan Integrala eta Arreta Ibilbidea aurkeztu du”, Herriaren Defendatzailea, 2017ko abenduaren 1a, Bogota.

teen eta erakundeen testigantzak entzuteko, eta haren funtzionamenduari buruzko eztabaidetan murgilduta dago; estatuko erakundeek kontuak emateko leku bat baino ez da izan momentura arte, gizarte-lidergoa zutenen giza hilketei dagokienez. Era berean, momentuz ez dira Buenaventuran (Valle del Cauca) eta Tumacon (Nariño) iragarritako bi plan pilotuak sortu eta aktibatu. Gaur egun, Batzordea osatzen duten 15 lagunetatik bi bakarrik dira emakumeak, %13 bakarrik, alegia.

Talde horien kontra borrokatzeko beste bi neurri ere erdizka garatu dira, gaia oso larria izan arren, giza eskubideak defendatzen dituztenak hiltzeko arriskuak bere horretan jarraitzen baitu. 1.088 langilez osaturiko **Polizia Nazionalaren Eliteko Kidegoa** oso berandu sortu da (2017ko ekainean) eta momentuz ez du emaitza irmorik izan. 2017ko maiatzean, **Fiskaltzaren Ikerketa Unitate Berezia** sortu zen lege-dekretu bidez, baina oraindik ez du bete Bake Hitzarmenak esleitutako helburua; azaroaren 27an, haren zuzendaria izendatu zuten. **Prebentzio eta Alerta Sistema** berriak ere ez du garapen handiegirik izan; hark beharrezko autonomia eta baliabideak eman beharko litzioke Herriaren Defendatzaileari, giza eskubideak defendatzen dituzten edo gi-

zarte-lidergoa dutenen kontrako erasoei aurrea hartzeko. Azaroaren amaieran, Barne Ministerioak dekretu-proiektu ireki bat argitaratu zuen.

Politikan parte hartzeko eta gudari ohiak berriz gizarteratzeko bermeak

Misioaren ustez, Kolonbiako demokraziarako oso aurrerapauso garrantzitsua da **Oposizio Politikoaaren Estatutua** onartu izana, haren birtatez, zenbait eskubide bermatzen baitzaizkie gobernuaren oposizioko alderdiei. FARC-EP gerrillek egin zuten behin betiko aurrerapausoa aldarrikatzen du, horiek armak utzi eta **"Fuerza Alternativa Revolucionaria del Común"** alderdi politikoa sortu baitzuten; hark 2017ko urriaren 31tik du izaera juridikoa. Alderdi horrek emakumeen %23ko partaidetza ziurtatzen du 111 kidez osaturiko bere Zuzendaritza Nazional Kolegiatuan, %27koa 15 kidez osaturiko Kontseilu Politiko Nazionallean, eta 2 emakumerena Errepublikako Senaturako hurrengo hauteskundeetara aurkeztuko diren hautagaien zerrendetako lehen



5 lerroetan. Izaera juridikoa bereganatu arren, nolabaiteko **segurtasun juridikorik** eza dago oraindik ere, gudari ohi ugari salatu baitituzte, horiek beren amnistia- eta/edo indultu-ziurtagiriak jaso badituzte ere. Gainera, **segurtasun fisikorik** eza ere oso nabarmena da, arestian aipatu dugun moduan. Horrez gain, elkarriketatutako gudari ohiek kezkak agertu zituzten **gizarte eta ekonomia arloan berriz gizarteratzearekin** lotuta, prestakuntza eta baliabide egokirik jasotzen ez dutelako, hain zuzen ere. Askok lurrik eza aipatu zuten, nekazaritza-proiektuak garatu ahal izateko. Gizarte eta ekonomia arloan modu arrakastatsuan gizarteratzeko aukerarik gabe, horiek legez kontrako ekonomia edo talde armatuetan txerta daitezke.

Herritarren partaidetza politikoari dagokionez, Misioa oso nahigabetuta dago Errepublikako Kongresuak **Bake Zirkunskripzio Iragankor Bereziak** sortzeko lege-proiektuari bide eman ez diolako, baita txosten hau amaitzean horiek zuten linbo juridikoagatik ere. Bake Hitzarmenean adostutakoaren arabera, gatazka armatuak bereziki eragindako eskualdeetako biktimei Kongresuan ordezkaritza zuzena ahalbidetzea zen lege horren helburua. Baina, Kroc Institutuak⁵ egindako txostenaren arabera, **emakumeen partaidetza politikoa eta herritarra** (2.3.7. puntua) sustatzeko aurreikusitako 3 neurrietatik bakar bat ere ez da abiarazi oraindik, eta horrek izugarri kezkatzen du Misioa. Misioak elkarriketatutako emakume gudari ohiak Estatuak prestakuntza politikorako eskaintzen dizkien baliabiderik ezagatik kexatzen dira, baita hezkuntza, osasun, laguntza psikosozial eta aurkeztutako proiektu ekonomikoen arloan egindako proposamenengatik ere. Gainera, genero-ikuspegia haren aplikazio hutsera muga ez dadila eskatzen dute emakume-elkarteek, eta gai guztietan zeharkako zerbait izan dadila.

Misioak are **arazo garrantzitsuago** baten berri eman du **gizarte-protestarako bermeekin lotuta**. “*Mobilizazioa eta protesta baketsua ekintza politikorako legezkoak direla*” jasotzen du Bake Hitzarmenak, eta lege baten garapena aurreikusten du eskubide hori bermatzeko, baina zentzu horretan ez da aurrerapen garrantzitsurik egin legetan. Bisitatutako lurraldeetan, Indar Publikoaren aldetik jasandako erasoen testigantzak

entzun ahal izan zituen Misioak, Polizia Nazionalaren aldetik eta Istiluen Aurkako Eskuadroi Mugikorraren aldetik batez ere. Kasu hunkigarrien artean, honako hauek ditugu: Buenaventurako Geldialdian, Batzordeak 772 biktima erregistratu zituen errepresio polizialaren eraginez, horietatik 17 bala batek jota; Tumacoko sarraskian, Poliziak legez kontrako laborantzaren erauzketa behartuaren kontrako manifestazioan parte hartu zutenen kontra tiro egin eta 7 hil zituen, betiere, nekazariak eskaintako testigantzen arabera; eta herri indigenen Minga edo Mobilizazio Nazionalan, gutxienez 41 indigena zauritu ziren agintari kolonbiarrek indarraren gehiegizko erabilera egi-teagatik.

“Manifestazio baketsuetan parte hartzea modu baketsuan biltzeko, adierazteko eta elkartzeko eskubidea eta gai publikoen zuzendaritzan parte hartzeko eskubidea gauzatzeko modu garrantzitsu bat izan daiteke.”

Giza Eskubideen Kontseilua, A/HRC/25/L.20 Ebazpena, 2014ko martxoaren 24a.

Biktimak hitzarmenen erdigunean: egiaren, justiziaren, ordainaren eta gertatutakoa ez errepikatzeko sistema integrala

Misioak 01. Legegintzako Egintzaren onespena aldarrikatzen du, hura izan baitzen egiaren, justiziaren, ordainaren eta gertatutakoa ez errepikatzeko sistema integrala sortzeko lehen urratsa. Izan ere, hark hiru mekanismo nagusi hauen jaiotza eragin zuen: Bakerako Jurisdikzio Berezia, Desagertutakoak Bilatzeko Unitate Berezia, eta Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Gertatutakoa Ez Errepikatzeko Batzordea. Dena den, eta Bake Hitzarmenaren testuarekin eta espirituarekin bat etorritik, oraindik ere kezka handiak daude ezarpenari dagokionez. **Bakerako Jurisdikzio Berezia (BJB)** sortzeko legegintza-prozesuan oso

5 Informe sobre el estado efectivo de implementación del acuerdo de paz en Colombia”, Nazioarteko Bake Ikerketen Kroc Institutua, 2017ko azaroa, Bogota.



aldaketa garrantzitsuak gaineratu ziren, hala nola giza eskubideak defendatzen dituztenak magistratu-karguetarako ezgaitzea eta zibilak (enpresariak eta Indar Publikoetako kide ez diren Estatuko agenteak, adibidez) norbere borondatez ager daitezela uztea. Aldaketa horiekin, BJBk ez zukeen zigorgabetasunaren kontrako borrokan duen eginkizuna beteko, eta hori izango litzateke, inolako zalantzarik gabe, indarkeria ez errepikatzeko berme onenetako bat.

Misioa oso pozik dago BJBko magistratu titular gehienak emakumeak direlako. Era berean, Misioak begi onez ikusten du **Desagertutakoak Bilatzeko Unitate Bereziaren** sorrera, baita Luz Marina Monzón haren zuzendari izendatu izana ere, hark esperientzia handia baitu giza eskubideen defentsan. Unitate horrek erronka ugari ditu aurretik eta, horregatik, Misioak harrigarritzat jotzen du Kolonbiako Estatuak finantza-laguntzarik ez eskaini izana, haren zuzendariak erakunde publiko berri hori martxan jarri ahal izan dezan. Arestian esan dugun moduan, derrigorrez desagertutako 60.630 biktima baino gehiago daude. Ez dago galtzeko denborarik.

Misioak ez zuen **Egia Argitzeko, Bizikidetzarako eta Gertatutakoa Ez Errepikatzeko Batzordeko** kideekin biltzeko aukerarik izan, baina begi onez ikusten du hura sortu izana, baita Francisco de Roux zuzendari izendatu izana ere, hark esperientzia aitortua baitu giza eskubideen eta komunitateen aldeko borrokan. Misioak elkarriketatutako pertsona askok egiaren garrantzia azpimarratu zuten bakearen eraikuntzan aurrera egiteko eta indarkeria-egintzak errepikatu ez daitezela bermatzeko.

deek, kontsultatutako mugimenduek eta gudari ohiek bakearen aldeko apustua egiten jarraitzen dute.

Bake Hitzarmenak barne hartzen dituen neurriak ez bete izanak eta aurrerapenik ez egin izanak Kolonbiarentzat oso negatiboak izan daitezkeen ondorio ugari eragin dituzte. Batetik –Nazio Batuen arabera–, FARCeko kide asko Gaikuntza eta Gizarteratze Lurralde Esparruetatik joan dira segurtasunik ezagatik eta gizarte eta ekonomia arloan gizarteratzeko aukerarik ez izateagatik. Bestalde, gaur egun Quiton gauzatzen ari den Kolonbiako gobernuaren eta ELN gerillaren arteko negoziazio-mahaiari mezu negatibo bat helarazi zaio, baita herritarrei ere, eta 2018ko presidentetza- eta legegintza-hauteskundeetan beren botoa eman dezatela eskatuko zaie horiei.

Oso garrantzitsua da Bake Hitzarmenaren ezarpenean aurrerapausoak ematea eta hura lurraldeetara irits dadila bermatzea. Izan ere, horrela bakarrik bermatu ahal izango da zigorgabetasunaren kontra eta mota guztietako indarkerien kontra borrokatu dadila, genero-ikusegia enuntziatu hutsetan geratu ez dadila eta behar bezala zehaztu dadila, gatazka armatuaren arrazoiek bere horretan ez jarraitzeko gizarte eta ekonomia arloko aukerak eraiki daitezela, eta gudari ohiek kriminaltasuna ez den beste bide batzuk bila ditzatela. Horrela, benetako bake iraunkorra bermatu ahal izango da.

Ondorioak

“Lurraldeetan ez da bakea sentitzen, baina itxaropena mantentzen da”, horrela amaitu zuen Misioak Kolonbiara egindako bisita. Kolonbiako Estatuak Bake Hitzarmenean bereganatutako konpromiso ugari ez bete arren, gudari ohientzako segurtasun-bermerik ez izan arren eta giza eskubideak defendatzen dituztenen eta buruzagien kontrako erasoak areagotu arren, aktore armatu berriak iritsi eta berriz ere gatazka armatuaren erdian egon arren, komunitateek, erakun-



Gomendioak

Kolonbiako gobernuari

- o Bake Hitzarmenean jasotzen diren eta bere eskumenekoak diren neurri guztiak berehala eta eraginkortasunez betetzea, hala nola segurtasun-bermeekin, herritarren partaidetza politikoarekin eta gudari ohiak gizarte eta ekonomia arloan berriz gizarteratzearekin lotutako neurriak, eta honako hauexek, batez ere:
 - Herriaren Defendatzailearen eskutik, Prebentzio eta Alerta Sistema berria martxan jartzea, giza eskubideak defendatzen dituzten eta gizarte-lidergoa duten pertsona gehiago erail ez ditzaten.
 - Giza eskubideak defendatzen dituztenen arretarako, babeserako eta prebentziorako beharrezko mekanismo eraginkorrak eta egokiak indartzea (babes-neurri kolektiboak barne), baita ikuspegi bereizia dutenak ere (Hitzarmenaren 3.4. puntuan aurreikusten den komunitateentzako Segurtasun eta Babes Programa Integrala), eraginkortasun handiagoaz jardun dezaten eta jasaten dituzten erasoak hilketa bihur ez daitezen.
 - Mobilizazio eta protesta sozialerako eskubidea bermatuko duen lege-proiektua berehala aurkeztea, giza eskubideen erakundeekin batera prestatu beharko litzatekeen proiektua, alegia.
 - Bake Hitzarmenaren eraginez sortutako erakundeei beharrezko aurrekontua eskaintzea, guztiz martxan jar daitezen, baina, batik bat, Segurtasuna Bermatzeko Batzorde Nazionalari eta Desagertutakoak Bilatzeko Unitate Bereziari.
 - Gudari ohiak gizarte eta ekonomia arloan berriz gizarteratzeko programak ezartzea.
- o Indar Publikoko kideen edo funtzionario publikoen eta talde neoparamilitarren artean egon daitezkeen lotura guztiak apurtzeko beharrezko neurriak hartzea.
- o Kolonbiako Estatua FARC-EPak irten ziren lurraldeetara iritsi ahal izateko estrategiak martxan jartzea, gaur egun arrisku-egoera altuan baitaude. Agerpen horrek erabatekoa izan behar du, eta ez da Indar Publikoaren agerpen hutsera mugatu behar.

- o Bake Hitzarmenaren bake eta sozializatorako benetako pedagogia-plana garatzea.
- o Hitzarmenaren ezarpenean genero-ikuspegia modu eraginkorrean txertatzea eta emakumeek Bake Hitzarmenak sortutako instantzia guztietan parte hartzeko neurriak abian jartzea.
- o Amnistiari eta indultuari buruzko 2016. urteko 1.820 zenbakiko Legean bereganatutako konpromiso juridikoak bizkortzea eta betetzea.

Segurtasun Bermeen Batzorde Nazionalari

- o Giza eskubideak defendatzen dituzten eta gizarte-lidergoa dutenen kontra eta, oro har, bakearen kontra eraso egiten duten talde kriminalak –talde paramilitarrak barne– desegiteko moduko politika publikoak garatzeko plan garbia argitaratzea. Plan hori gizarte-mugimenduko kideen partaidetzarekin eratu beharko litzateke, eta bidaia erregularrak gaineratu beharko litzateke lurraldeetara, betiere, lurralde horietako biztanleen lekukotzak jasotzeko asmoz.
- o Emakume-elkarteekin batera, Batzordearen eztabaidetan benetan eta eraginkortasunez parte hartzen dutela bermatzeko moduko mekanismoa eratzea.

Nazioko Fiskaltza Nagusiari

- o Giza eskubideak defendatzen dituztenen kontrako eraso, zirikatze, jarraipen, zaintza eta mehatxu guztien ikerketa azkarra, inpartzialak eta testuinguruaren arabera bermatzea eta haien erantzule materialak zein intelektualak zigortzea.
- o Paramilitarismoaren ondorengo egitura kriminalak guztiz desegiteko moduko ikerketak bereganatzea. Horretarako, talde horiek eko-



nomia, estatu eta politika arloko aktoreekin dituzten loturak ikertu beharko dira. Nazioko Fiskaltza Nagusiak aurrekoarekin lotuta egin duen Ikerketa Unitate Bereziaren Plana, behaketa-eredua, ebaluazioa eta emaitzak aurkeztea.

- o Genero-indarkeriarekin lotutako ikerketei lehenentasuna ematea eta, horretarako, ikerketa-metodologia bereizgarriak onartzea.

ahal izango dela bermatzea eta gatazka armatuan eginkizun erabakigarria izan duten guztiak eta herrialdean gertatu diren krimen guztiak jakitera ematea, hala nola lekualdatze behartuak, sexu-indarkeria gerrarako arma gisa, buruzagien erailketak eta desagerpen behartuak.

- o 2018ko hauteskundeetarako zerrenda paritarioak (gizona/emakumea) prestatzea eta, zerrenda itxiak aurkeztuz gero, horiek gizonak eta emakumeak tartekatzea.

Kongresuari eta alderdi politikoei

- o Kolonbian bakearen aldeko konpromisoa agertzea, gizarteari despolarizatzen laguntzea, bizikidetzat berria sustatzea eta gaur egungo eztabaidetatik hauteskunde-sesiorik ez egitea.
- o Habanan adostu zena eta Kongresuak 2016ko azaroaren 30ean berretsitako Bake Hitzarmenean islatzen dena errespetatzea.
 - Bake Jurisdikzio Bereziak zigorgabetasunaren kontra borrokatzeko helburua bete

Aktore armatu guztiei

- o Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidea eta Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa errespetatzea, baita herritar zibilak, horien bizilekuak eta gatazkatik babesteko dituzten erremintak ere.

Kolonbiako Gobernuari eta ELN gerrillari

- o Gatazka armatuari irtenbide negoziatua emateko konpromisoari eustea.
- o Gizarte zibil antolaturako, komunitateentzako, erakundeentzako, gizarte-mugimenduentzako... partaidetza-eremuak bermatzea.
- o Emakume- eta/edo feminista-elkarteek eta -mugimenduek negoziazio-eremu guztietan parte hartzeko aukera dutela bermatzea.
- o Negoziazio-prozesua neurri humanitarioetan zehazten dela bermatzea, komunitateen kontrako indarkeria gehiago egon ez dadin.

Komunikabideei

- o Bakea eraikitzeko beharrezko ahaleginak egitea eta, bereziki, polarizazioa, sexismoa eta arrazismoa saihestuko lengoaia sustatzea. Horrez gain, beste alderdiaren jarrera eta sufrimendua ulertzen lagunduko duen mezua hedatzea, bizikidetzaren modu berriak ezartzeko.

Nazioarteko komunitateari

- o Bake Hitzarmenaren ezarpena modu erabakigarrian babesten jarraitzea.
- o Kolonbiako gobernuaren eta ELN gerrillaren arteko Quitoko prozesuan laguntzea.
- o Bake Hitzarmenaren ezarpenari dagokionez, Kolonbiako Estatuari emaitza zehatzak eskatzea, batik bat segurtasun-bermeei, partaidetza politikorako bermeei, erabateko landa-garapenari eta genero-ikuspegiaren garapen eraginkorrari dagokionez.
- o Lurraldeetan nazioarteko presentzia handiagoa sustatzea, komunitateen eta bertako buruzagien babesak eta ikusgaitasuna handitu ahal izateko.

- o Emakumeen partaidetza, aukera-berdintasuna eta sexu-indarkeriarekin lotutako zigorgabetasunaren kontrako borroka ahalbidetuko dituen bakearen eraikuntza bermatzea, gatazka armatuaren esparruan.
- o Bizitza zibilera itzultzen ari direnean, gudari ohiei gizarteratze sozialean, ekonomikoan eta politikoan laguntzea.
- o Kolonbiako Gobernuari gardentasuna eta informazioa eskatzea Bake Hitzarmenetik eratorritako mekanismoak eta proiektuak ezartzeko orduan; izan ere, horiek finantziario eta/edo aholkularitza teknikoa jasotzen dute nazioarteko lankidetzaren bitartez.
- o Giza Eskubideen Goi Ordezkaritzaren Kolonbiako bulegoa (Oacnudh) babesten jarraitzea, hari beharrezko baliabideak eta babes politikoa eskainiz, betiere, bere eginkizunarekin jarrai dezan, ezinbestekoa baita benetako bake iraunkorra eraiki ahal izateko. I. eta II. Egiaztatze Misioak funtsezkoak izan arren, horiek ez dute Oacnudhen eginkizuna ordeztzen, batik bat giza eskubideen esparruan eta gatazka eraldatzeko orduan.

Elkartasun, giza eskubide eta lankidetzaren arloko nazioarteko erakundeei

- o Komunitateek segurtasun-egoera larriak bizi dituzten lurraldeetan presentzia eta babesak edukitzea.
- o Gatazka armatuak ohi baino gehiago kaltetu dituen eta giza eskubideen urraketak jasaten jarraitzeko arriskua duten landa-eremuko komunitateei, komunitate etnikoei eta emakumei arreta berezia eskaintzea.
- o Bizitza zibilera itzultzen ari direnean, gudari ohiei gizarteratze sozialean, ekonomikoan eta politikoan laguntzea.

Honako hauexen laguntzaz egindako argitalpena:



**Agència Catalana
de Cooperació
al Desenvolupament**



**GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA**
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



**Ajuntament
de Barcelona**



**Bundesministerium für
wirtschaftliche Zusammenarbeit
und Entwicklung**



**Cooperación
Española**



**Ziviler Friedensdienst
Civil Peace Service**

We don't turn our backs on conflict.



**DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN**



**Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa**



● Bajo Atrato

● Quibdó

● Bogotá

● Buenaventura

● Cali

● Tumaco



ZONA HUMANITARIA "NUEVA ESPERANZA"

LUGAR EXCLUSIVO DE POBLACIÓN CIVIL
PROHIBIDO EL INGRESO DE ACTORES ARMADOS.
PROTEGIDA POR EL DERECHO INTERNACIONAL
HUMANITARIO



Mundubat

www.mundubat.org
www.facebook.com/Mundubat



abriendo espacios para la paz